

KULTURA SAILA

AGINDUA, 2000ko abenduaren 20koa, kultura sailburuarena, euskal kirolari paraolimpikoentzako sariak arautzen dituen Agindua aldarazten duena. 23676

Xedapen Orokorrak**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA****Zk-5881**

10/2000 LEGEA, abenduaren 27koa, Gizarte Eskubi-deen Agiriarena.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

10/2000 LEGEA, ABENDUAREN 27KA, GIZARTE
ESKUBIDEEN AGIRIARENA

ZIOEN ADIERAZPENA

Gizarte demokratiko ororen oinarritzko zutabea da gaur egun gizarte-politika. Politika horren xede nagusietako bat hauxe da: herritarren aurrerabide sozial eta ekonomikoa eta gizaki guztientzat ahalik eta autonomia handiena eta bizi-kalitate onena lortzearen alde ekitatez jarduteko ideal eta printzipioak bultzatzea, batik batik giza eskubideen, funtsezko askatasunen eta pertsonaren duintasunaren defentsa eta garapena oinarri hartuz.

Mendebaldeko gizarteetan soldatapeko lana da gehienentzat gizarte txertatzeko bide bakarra, horren bitartez eskuratzen baitira bizimodu duina, gizarte-ondasunez baliatzeko aukera, autoestimua eta erabateko herritartasuna izateko ahala. Horrek bere baitan dakar pertsonak bizi diren gizartearentzako baliagarri izateko eta sentitzeko duten eskubidea, ez baitago baliagarri izaterik gizabanakoen eta lanaren arteko lotura etenez gero.

Gauza jakina da Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindari izan dela gizarte-politikak bultzatzen: gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera, gizarte-larrialdietarako laguntzak, gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko plana, Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legea, eta abar. Horien guztien helburua pertsona baztertuak gizarteratzea eta lan-merkatuan sartzea da.

DEPARTAMENTO DE CULTURA

ORDEN de 20 de diciembre de 2000, de la Consejera de Cultura, de modificación de la Orden por la que se regulan los premios para los deportistas vascos paralímpicos.

23676

Disposiciones Generales**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO****Nº-5881**

LEY 10/2000, de 27 de diciembre, de Carta de Derechos Sociales.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente

LEY 10/2000, DE 27 DE DICIEMBRE, DE CARTA DE
DERECHOS SOCIALES.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La política social constituye hoy un pilar fundamental de toda sociedad democrática. Uno de sus objetivos principales consiste en promover los ideales y los principios destinados a favorecer, en condiciones de equidad, el progreso social y económico de la ciudadanía y la consecución, para todos los individuos, del mayor nivel de autonomía y calidad en sus vidas, en particular sobre la base de la defensa y el desarrollo de los derechos humanos, de las libertades fundamentales y de la dignidad de la persona.

En las sociedades occidentales el trabajo asalariado constituye para la mayoría el único medio de integración social, siendo por su mediación como se obtienen los recursos económicos necesarios para tener una vida digna, acceso a los bienes sociales, a la autoestima y al ejercicio de la plena ciudadanía. Esto incluye el derecho de las personas a ser y sentirse útiles a la sociedad en que viven, contribución que no puede realizarse si se rompe el vínculo entre los individuos y el trabajo.

Es conocido que la Comunidad Autónoma del País Vasco ha sido pionera en lo que se refiere al impulso de las políticas sociales: el ingreso mínimo de inserción, las ayudas de emergencia social, el plan de lucha contra la exclusión social, la ley contra la Exclusión Social, etcétera. Todas ellas se dirigen hacia el objetivo de la inserción social y laboral de las personas excluidas.

Hala eta guztiz ere, milaka lagunek jarraitzen dute oraindik ere baztertuta, eta izan den hazkunde ekonomikoa izanda ere, gehiegizkoa da oraindik ere gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko langabezia-tasa.

Gaur egun ezinbestekoa da administrazio publikoen arteko adostasuna pobrezia eragiten duen gizarte-bazterkeria zuzentzeko, eta administrazio publiko horiek gizarte-hausturaren arriskua eragozten ahalegindu behar dute, batzuek, oinarritzko gizarte-eskubideak erabili ezin dituztelako, erabateko herritar izateko duten ezintasuna gainditzeko bideak definituz.

Legebiltzar honek aintzat hartu du Gizarte Eskubi-deen Agiria onesteko herri-ekimenezko lege-proposamena, herritarrek aurkeztua eta, batez ere, lan-banaketari eta oinarritzko errentari buruzkoa dena.

Esan beharra dago, alde horretatik, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.2 artikulua euskal aginte publikoei agintzen diela ezen, bere eskumenen barruan, ziurta dezatela herritarren oinarritzko eskubide eta betebeharren erabilpen egokia, bultza dezatela lan eta bizi baldintzak hobetzera bideratutako politika, susta dezatela enpleguaren gehikuntza eta ekonomiaren egonkortasuna, sor ditzatela baldintzak eta ken ditzatela oztopoak gizabanakoaren eta hori sartuko den taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezkoak eta benetakoak izan daitezten eta erraz diezaietela bidea herritar guztiei Euskadiko politikan, ekonomian eta kulturen parte hartzeko.

Hori dela eta, eta Estatutuaren agindu hori garatuz, lege honen bitartez Gizarte Eskubi-deen Agiria onesten da. Agiriak bere baitan biltzen dituen eskubideak unibertsalak dira eta horiek benetan erabili egiten direla ziurtatzea euskal administrazio publiko eskudunei dagokie.

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— Legearen xedea.

Lege honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegorako Gizarte Eskubi-deen Agiria aldarrikatzea, herritar guztiei lan-merkatuan sartzea ahalbidetuko diena eta beren herritar-eskubideak erabili ahal izateko oinarritzko errenta bat ziurtatuko diena.

Horretarako, dualizazioari, pobrezia eta gizarte-bazterkeriari aurre egiteko jardunbideak ezartzen dira, bai eta administrazioen betebeharrak eta herritarren betebeharrak eta eskubideak ere.

Lege honen xede da, orobat, herritarren oinarritzko eskubideak aldarrikatzea.

A pesar de ello, aún se mantienen muchos miles de personas en la marginación, y también a pesar del crecimiento económico, aún se padece en la Comunidad Autónoma del País Vasco una tasa de paro excesiva.

Hoy en día, el consenso de las Administraciones públicas resulta indispensable para la corrección de la exclusión social que produce la pobreza, y desde dichas Administraciones públicas se debe actuar para evitar el riesgo de fractura social definiendo mecanismos capaces de superar aquellas situaciones en las que la falta de derechos sociales básicos pueda conllevar la incapacidad de ejercer la plena ciudadanía.

Por este Parlamento se ha tomado en consideración la proposición de ley de iniciativa legislativa popular para una Carta de Derechos Sociales, presentada por parte de la ciudadanía y referida fundamentalmente al reparto de trabajo y a la renta básica.

Debe señalarse a estos efectos que el artículo 9.2 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco ordena a los poderes públicos vascos que, en el ámbito de su competencia, garanticen el adecuado ejercicio de los derechos y deberes fundamentales de la ciudadanía, impulsen una política tendente a mejorar las condiciones de vida y de trabajo, fomenten el incremento del empleo y la estabilidad económica, promuevan las condiciones y remuevan los obstáculos para que la libertad y la igualdad de las personas y de los grupos en que se integran sean efectivas y reales y faciliten la participación de todas las ciudadanas y de todos los ciudadanos en la vida política, económica y cultural de Euskadi.

Por ello, y en desarrollo del citado precepto estatutario, se adopta por la presente ley la Carta de Derechos Sociales, que contempla derechos que tienen un carácter universal y cuyo ejercicio efectivo corresponde garantizar a las Administraciones públicas vascas competentes.

TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.— Objeto de la ley.

El objeto de la presente ley es proclamar en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco una Carta de Derechos Sociales que posibilite a todos los ciudadanos el acceso al mercado de trabajo y les garantice una renta básica para que puedan ejercer sus derechos de ciudadanía.

A tal fin, se establecen los mecanismos de actuación necesarios para hacer frente a las situaciones de dualización, pobreza y exclusión social, así como las obligaciones de las Administraciones y las obligaciones y derechos de los ciudadanos.

Asimismo, es objeto de esta ley la declaración de los derechos básicos de ciudadanía.

Lege honetan aldarrikatzen diren eskubideak ordenamendu juridikoak horietako bakoitzarentzako bereziki ezartzen duen moduan garatu eta erabiliko dira.

2. artikulua.– Lege honek gidari dituen printzipioak.

1.– Herritartasun-eskubideak benetan erabiltzeko, nahikoa diru-baliabide eduki beharra dago bizimodu autonomo, duin eta kalitatezkoa egin ahal izateko, eta hori lan-merkatuan sartzearen baitan dago, betiere gizartean erabat txertatzeko helburuarekin.

2.– Kontuan izanik hainbat pertsona, arrazoi asko direla eta, lan-merkatutik kanpo gelditu direla, merkatu horretan sartzea errazteko neurriez gain, beharrezkotzat jotzen dugu oinarrizko errenta bat ezartzea, aberastasuna birbanatzeko beste bide bat denez.

3.– Enplegu-politika egokia egin beharra dago herritar guztiek enplegu duin bat lortzeko aukera izan dezaten, horretarako irizpide hauek erabiliko direlarik: enplegua sortzea, lanorduak murriztu eta berrantolatzea, aparteko orduak kentzea eta kontrolatzea, bai eta, horrenbestez, pertsonen eta gizataldeen arteko elkartasun eta berdintasun printzipioak ere.

3. artikulua.– Oinarrizko gizarte-eskubideak.

Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiek, dagokien ordenamendu juridikoaren eta agiri honen esparruan, honako oinarrizko gizarte-eskubideok dituzte:

- a) behar adinako gizarte-babesa izatekoa.
- b) osasun-babesa eta arreta eta zerbitzu sanitario egoiak izatekoa.
- c) kalitatezko hezkuntza izatekoa.
- d) etxebizitza duin eta egokia izatekoa.
- e) ingurumen babestua izatekoa.

Aipatutako eskubide guztiak errespetatu eta sustatu egingo dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko aginte publikoek.

II. TITULUA ENPLEGUA SUSTATZEA

4. artikulua.– Enplegua sustatzea.

1.– Kontuan izanik langabeziarentzako irtenbide nagusia enplegu berriak sortzea dela, jarraian aipatzen diren enplegu-sustapenerako neurri guztiak osagarritzat jotzen dira edo, bestela, garapen ekonomiko orokorra bideratutako politika orokorren zuzentzailatzat.

2.– Euskal administrazio publiko eskudunek honako neurri hauek erabiliz sustatuko dute enplegua:

Los derechos proclamados en la presente ley se desarrollarán y ejercerán en los términos que establezca el ordenamiento jurídico específico para cada uno de ellos.

Artículo 2.– Principios inspiradores.

1.– El ejercicio efectivo de los derechos de ciudadanía implica contar con los recursos económicos suficientes para poder llevar a cabo una vida autónoma, digna y de calidad, lo cual a su vez depende del acceso al mercado de trabajo, todo ello en aras de la consecución de la plena integración social.

2.– Teniendo en cuenta que hay personas que han quedado excluidas del mercado de trabajo por múltiples razones, además de las medidas dirigidas a facilitar la incorporación al trabajo, se entiende necesario establecer una renta básica como otro mecanismo para la redistribución de la riqueza.

3.– Se ha de acometer una política de empleo que desde criterios de creación de empleo, reducción y reordenación del tiempo de trabajo, así como de flexibilidad del tiempo de trabajo, supresión y control de las horas extraordinarias, y consecuentemente con los principios de solidaridad y de igualdad entre personas y grupos sociales, propicie el acceso de todos los ciudadanos a un empleo digno.

Artículo 3.– Derechos sociales básicos.

Todos los ciudadanos del País Vasco tienen, en el marco del ordenamiento jurídico correspondiente y de esta carta, los derechos sociales básicos que se enuncian seguidamente:

- a) a una protección social suficiente.
- b) a la protección de la salud y a la atención y prestaciones sanitarias adecuadas.
- c) a una educación de calidad.
- d) a una vivienda digna y adecuada.
- e) a un medio ambiente protegido.

Todos los derechos mencionados serán objeto de respeto y promoción por parte de los poderes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

TÍTULO II PROMOCIÓN DEL EMPLEO

Artículo 4.– Promoción del empleo.

1.– Teniendo en cuenta que frente al paro la principal solución pasa por la creación neta de empleo, todas las medidas de promoción del empleo que a continuación se indican se entenderán como complementarias o correctoras, en su caso, de las políticas generales dirigidas al desarrollo económico general.

2.– Las Administraciones públicas vascas competentes promoverán el empleo mediante las siguientes medidas:

a) Gizarte-eragileen arteko akordioen bidez enplegua banatzeko bideak ezartzea. Horretarako, batez ere, honako hauek hartuko dira oinarri: lanorduak murriztea, aparteko orduak kentzea, antolamendu-bide malguak ezartzea eta kontratazio berriak bultzatzea.

b) Enplegu-sorgune berriak eta sektore ekonomiko berriak identifikatu eta garatzea.

c) Ekintza positiboko neurriak, gizatalde behartsuenei lan-merkatuan sartzen laguntzeko, eta bereziki emakumei, gazteei, luzaroko langabetuei, ezindu fisikoei eta gizartean baztertuta daudelako lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten guztiei.

d) Ekintza positiboko neurriak, krisi ekonomikoak bereziki eragindako eremuen alde.

e) Ekintza positiboko neurriak, familiako erantzukizunak eta lanekoak bateragarri egiten laguntzeko.

3.– Euskal administrazio publikoek, gizarte-eragileekin egindako negoziazio-prozesuetan erdietsitako akordioak oinarri hartuz, honela arautuko dituzte beren zerbitzuko langileen lan-harremanak:

a) Lanaldiaren laburtzea hedatuz. Lan-astea gehienez ere 35 ordukoa izango da.

b) Ordezte edo errelebu kontratuak sinatzea bultzatuz.

c) Aparteko orduak kenduz, eta nahitaez egin beharrekoak direnean haien ordez denbora librea emanez.

5. *artikulua*.– Negoziazio kolektiboa.

Interes orokorra ahantzi gabe, enpresari-elkarteek eta sindikatuek, negoziazio kolektiboaren eta indarrean dauden legeriaren barruan, lege honetan arautzen diren eskubideak benetan eta modu eraginkorrean erabiltzeko behar diren erabaki eta neurriak hartuko dituzte.

III. TITULUA OINARRIZKO ERRENTA

6. *artikulua*.– Onuradunak.

Honako hauek izango dira onuradunak: Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritako erroldan gutxienez urtebete sartuta egonik, eta beren elkarbizitza-unitatearen irabaziak eta ondarea kontuan hartuta, oinarriko beharrezaneiei eta gizarteratzeko eta lan-merkatuan sartzeko prozesuaren ondorioz sortutakoei aurre egiteko nahikoa diru-baliabide ez dutenak.

a) La introducción, mediante acuerdos entre los agentes sociales, de mecanismos de reparto de empleo basados fundamentalmente en la combinación de la reducción del tiempo de trabajo, la eliminación de horas extraordinarias, la introducción de mecanismos flexibles de organización y la promoción de nuevas contrataciones.

b) La identificación y el desarrollo de nuevos yacimientos de empleo, así como de nuevos sectores económicos.

c) Medidas de acción positiva destinadas a favorecer la integración laboral de los colectivos más desfavorecidos, y en particular de las mujeres, de los jóvenes, de los parados de larga duración, de los discapacitados físicos y de cuantas personas tengan especiales dificultades de inserción laboral por encontrarse en situación de exclusión social.

d) Medidas de acción positiva a favor de zonas geográficas especialmente afectadas por la crisis económica.

e) Medidas de acción positiva destinadas a facilitar la conciliación de las responsabilidades familiares y profesionales.

3.– Las Administraciones públicas vascas regularán las relaciones laborales del personal a su servicio, sobre la base de los acuerdos alcanzados en el proceso de negociación con los agentes sociales, en los términos siguientes:

a) Extendiendo la reducción de la jornada laboral hasta un máximo de 35 horas semanales.

b) Promoviendo la suscripción de contratos de sustitución o de relevo.

c) Suprimiendo las horas extraordinaria, que en los supuestos de realización inevitable serán compensadas con tiempo libre.

Artículo 5.– Negociación colectiva.

Sin olvidar el interés general, las organizaciones empresariales y sindicales, dentro de la negociación colectiva y la legislación vigente, adoptarán los acuerdos y medidas necesarios para la ejecución real y efectiva de los derechos regulados en esta ley.

TÍTULO III LA RENTA BÁSICA

Artículo 6.– Beneficiarios.

Serán beneficiarias aquellas personas empadronadas en uno cualquiera de los municipios de la Comunidad Autónoma del País Vasco con al menos un año de antigüedad que, teniendo en cuenta las rentas y patrimonio de la unidad de convivencia a la que pertenecen, carecen de recursos económicos suficientes para poder hacer frente a las necesidades básicas y a las derivadas de un proceso de inserción social y laboral.

Beharrezkoa izango da premia-egoera frogatzen duen ziurtagiria, eta ziurtagiri hori, oinarrizko errentaren irizpidearen arabera, oinarrizko gizarte-zerbitzuek emango dute.

7. artikulua.— Zenbatekoa.

1.— Oinarrizko errentaren zenbatekoa honako diru-sarrera hauek ziurtatzeko behar dena izango da: urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren %75, hamabi hilabetetan emana, pertsona bakar batentzat, gehi soldata horren %25 bigarren pertsonarentzat, gehi soldata beraren %10 hirugarren pertsonarentzat eta harengandik aurrerako bakoitzarentzat.

2.— Ezein elkarbizitza-unitatek ez du jasoko lanbide arteko gutxieneko soldataren %125etik gorako zenbatekorik oinarrizko errenta gisa. Eusko Jaurларitzen erregelamenduz ezartzen dituen kasuetan gauditua ahal izango da, salbuespen gisa, muga hori.

3.— Artikulu honetan ezarritako oinarrizko errenta euskal herritarrei eragin liezaieketen pobrezia-egoerak desagertarazi nahiaren barruan kokatzen da. Nahi hori betetzen dela egiaztatu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko aginte publikoen erakunde ofizialek herritar horien esku jarriko dute garrantzizko izan litekeen datu eta informazio oro.

Horretarako, kontuan hartuko dira pobrezia-egoerak gaintzeko euskal administrazio publikoek, maila ekonomiko eta sozial batzuetan eta besteetan, martxan jaritzen dituzten politika guztiak.

8. artikulua.— Iraupena.

Oinarrizko errenta jasotzeari utziko zaio oinarrizko beharrianak aserik gelditzean edo gizarteratzea lortzen denean, horixe baita lege honen funtsezko helburua.

9. artikulua.— Gizarteratzeko eta lan-merkatuan sartzeko eskubidea.

1.— Gizartean baztertuta dauden pertsona guztiak dute gizarteratzeko eta lan-merkatuan sartzeko eskubidea, gizarteratzeko hitzarmenetan nahitaez parte hartuz, aplikatu beharreko lege-xedapenei jarraiki.

2.— Euskal administrazio publiko eskudun guztiak bultzatuko dute eskubide hori modu eraginkorrean erabiltzeko behar diren zerbitzu eta programak sortzea, aplikatzeko orduan gizarteratzea eta lan-merkatuan sartzeko bide normalizatuenetik egiteari lehentasuna eman-go bazaio ere.

IV. TITULUA FINANTZAKETA

10. artikulua.— Finantzaketa.

Lege honetan hartutako neurrien finantzaketa Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen ohiko au-

Será requisito necesario la certificación del estado de necesidad expedida, según el criterio de la renta básica, por parte de los servicios sociales de base.

Artículo 7.— Cuantía.

1.— La cuantía de la renta básica será la necesaria para garantizar unos ingresos del 75% del salario mínimo interprofesional anual en doce mensualidades para una sola persona, más un 25% del mismo para la segunda persona, y un 10% más para cada persona a partir de la tercera.

2.— Ninguna unidad de convivencia recibirá como renta básica un importe superior al 125% del salario mínimo interprofesional. Excepcionalmente, este límite podrá ser superado en los casos que el Gobierno Vasco reglamentariamente establezca.

3.— La renta básica fijada en este artículo se entiende en el contexto de la voluntad de eliminar las situaciones de pobreza que pudieran afectar a los ciudadanos vascos. Para poder constatar el cumplimiento de esta voluntad, los organismos oficiales de los poderes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco pondrán a disposición de los mismos todos los datos y la información que pueda ser de relevancia.

A tal fin, serán tenidas en cuenta todas las políticas que en los diferentes órdenes económicos y sociales se instrumenten desde las Administraciones públicas vascas y estén dirigidas a superar las situaciones de pobreza.

Artículo 8.— Duración.

La renta básica dejará de percibirse cuando se subsanen las causas que dieron origen a la falta de cobertura de necesidades básicas o se logre la inserción social, finalidad esencial de la ley.

Artículo 9.— Derecho a la inserción socio-laboral.

1.— Todas las personas que se encuentran en situación de exclusión social tienen derecho a la inserción socio-laboral, mediante su participación obligada en convenios de inserción, de conformidad con las disposiciones legales aplicables.

2.— Las Administraciones públicas vascas competentes promoverán la creación de los servicios y programas necesarios para el ejercicio efectivo de este derecho, sin perjuicio de priorizar en su aplicación la inserción socio-laboral por las vías más normalizadas.

TÍTULO IV LA FINANCIACIÓN

Artículo 10.— Financiación.

La financiación de las medidas adoptadas en la presente ley se realizará, en función de sus competencias,

rrekontuen bitartez egingo da, berek dituzten eskumenen arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Gizarte Eskubideen Agiriak izaera dinamikoa izango du aldaketa sozial eta ekonomikoetara egokitzeko. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako sail eskudunak zuzenduko ditu agiri honi buruz urtero egin beharreko azterketa eta ebaluazioak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik gelditzen dira lege honetan ezarritakoaren aurkako maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak, eta bereziki maiatzaren 22ko 12/1998 Legean, Gizarte Bazterkeriaren Aurkakoan, jasotakoak.

AZKEN XEDAPENAK

Lebena.— Autonomia Estatutuan eta azaroaren 25eko 27/1983 Legean, Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen arteko harremani buruzkoan, aurreikusitakoaren arabera, administrazio eskudunek behar diren arauak egingo dituzte lege honetan hartutako neurriak gauzatzeko.

Bigarrena.— Lege hau 2001eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko abenduaren 28a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARU.

mediante los presupuestos ordinarios de las Administraciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La Carta de Derechos Sociales tendrá un carácter dinámico para adaptarse a los cambios sociales y económicos. A tal fin, el Departamento del Gobierno Vasco competente dirigirá los análisis y evaluaciones anuales a realizar sobre esta carta.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo establecido en la presente ley, y en especial las contenidas en la Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Conforme a lo previsto en el Estatuto de Autonomía y en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, las Administraciones competentes elaborarán las normas correspondientes para la ejecución de las medidas adoptadas en la presente ley.

Segunda.— La presente ley entrará en vigor el 1 de enero de 2001.

Por consiguiente, ordeno a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de diciembre de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.